

AURKIBIDEA

Irailaren 17an, URTEAN ZEHARREKO XXIV, IGANDEA.....	4
Irailaren 24an, URTEAN ZEHARREKO XXV, IGANDEA.....	11
Urriaren 1ean, URTEAN ZEHARREKO XXVI, IGANDEA.....	17
Urriaren 8an, URTEAN ZEHARREKO XXVII, IGANDEA	22
Urriaren 15ean, URTEAN ZEHARREKO XXVIII, IGANDEA	31

Irailaren 17an
URTEAN ZEHARREKO XXIV. IGANDEA

Agurra

Bere mahaian biltzen gaituen Mesias Jauna izan bedi zuekin!

Sarrerako oharpena

Barkamenaren jaia dugu Eukaristia: maitasunaren eta adiskidetzearen jaia. Gaurko irakurgaiek eta liturgia osoak, gainera, barkamenerako deia eta irakaspena ematen digute. Gaitza eta ona bereizten, gaitza gaizkileagandik bereizten eta guztiaren gaintik barkamena ereiten jakin behar dugu kristauok. Horixe ikasten dugu eta ospatzen gure ospakizunean.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekatuak ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisia agindu zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Diren guztien egile eta gidari zaren Jainkoa,
 begira iezaguzu eta emaguzu bihotz guztiz Zu zerbitzatzea,
 zure errukiaren ondasunak suma ditzagun.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak gurekin egiten duena ezagutzeak elkar onartzen eta begirunez maitatzen lagundu behar liguke. Nola hots egin Jainkoa barkamena dela, beragandik jaso duguna besteei eskaintzen ez badiegu? Barkatua izatearen graziak barkatzen irakasten du, eta barkatzen dakienak bakarrik eskertzen du barkamena.

Lehenengo irakurgaia (*Si 327, 33–28, 9*)

Siraken liburutik

Amorrua eta haserrea higuingarriak dira;
 horietan maisu da gizon bekataria.
 Mendekatzen denak Jaunaren mendekua jasan beharko du,
 bekatuen kontu zorrotza hartuko dio.
 Barkatu lagun hurkoari egin dizun iraina,
 eta, zuk erregutzean,
 barkatuko dizkizu Jainkoak ere zeure bekatuak.
 Gizaki batek, amorrua badio beste bati,
 nolatan eska diezaioke Jaunari osasuna?

Bere kidekoarentzat errukirik ez duenak,
 nolatan eskatuko du bere bekatuen barkamena?
 Gizaki huts besterik ez denak amorruari eusten badio,
 nork lortuko dio bere bekatuen barkamena?
 Gogoratu amaiera eta egin uko gorrotoari;
 gogoratu ustelkeria eta heriotza,
 eta jarraitu leial aginduei.

Gogoratu aginduak,
 eta ez izan gorrotorik lagun hurkoari;
 oroitu Goi-goikoaren itunaz,
 eta ez hartu iraina kontuan.

Erantzun-salmoa (Sal 103 [102], 1-2. 3-4. 9-10. 11-12)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
 ta mai - ta - su - na.

- ✠. Bedeinka beza nire ar**im**ak Jauna,
 nire barren osoak haren izen **sant**ua.
 Bedeinka beza nire ar**im**ak Jauna,
 ez bedi ahaztu haren mesed**e**az. ✠.
- ✠. Erru guztiak dizkizu **bar**katzten,
 gaitz guztiak **sen**datzen;
 zure bizia hilobitik ask**kat**zen du,
 maitasunez eta errukiz koroatzen **zai**tu. ✠.

- ∞. Ez da etengabe auzitan ari,
ez du haserrea betiko gordetzen.
Ez gaitu erabiltzen gure bekatuek merezi bezala,
ez digu ordaintzen geure erruen arbera. ℞.
- ∞. Nola zerua lurraren gainean garai,
hala haren maitasuna begirune diotenentzat handi;
nola ekialdea mendebaldetik urrun,
hala ditu hark gure hobenak gugandik urruntzen. ℞.

Bigarren irakurgaia (Erm 14, 7-9)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Gutako inor ez da beretzat bizi, ezta beretzat hiltzen ere.
Bizi bagara, Jaunarentzat gara bizi, eta hiltzen bagara, Jaunarentzat
gara hiltzen. Beraz, nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara.

Honetarako hil eta piztu zen Kristo: hildakoen eta bizien Jauna izateko.

Aleluia (Jn 13, 34)

A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.

- ∞. Agindu berria ematen dizuet, dio Jaunak:
maita dezazmaita dezazuela elkar,
Nik maite izan zaituztedan bezala. ℞.

Ebanjelioa (Mt 18, 21-35)

Homiliarako argibideak

Barkamenaren notizia bikaina

Gaurko ebanjelioa berri on dela esanda, behar bada ez du jendeak berri bezala hartuko. Berritatzat egunkariaren lehen orrialdean agertzen dena hartzen baitugu: hemen, gaur gertatua, beti ere gugandik gertu. Adibidez, berria da auzokoari loteria tokatzea, gaixotasun batentzat sendabidea bilatzea edota norbait hil izana... hori ere gertu baldin bada... Baina, ebanjelioa "berri on"? Ez ote da esaldi erabili bat besterik gabe? Axola al digu beste behin entzutea Jainkoak gizakiak maite dituela, mugarik gabe barkatzen duela, Semea heriotzaraino eman duela gugatik? Notizia al da hori? Gure munduan, gugandik gertu gertatu al da hori? Eragiten al dio gure bizitzari, aldatzen al ditu gure planak eta erabakiak? Ospatzen al dugu? Egia esan, hala behar luke! Bestela, zertarako esaten dugu «sinesten dut... bekatuen barkamena»? Zer da, katekesian haur ginela ikasitako esaldi bat bakarrik?

Jainkoaren barkamena gure bizitzako benetako gertakaria baldin bada eta gertakari hori iragartzeak Berri On izan behar badu, harriduraz, pozez eta itxaropenez hartu behar dugu. Guretzat errealitate eder bat izan behar du Jainkoaren barkamenak. Eta hala ez bada... ez ote dugu fedea ahuldua edo itzali samarra? Jainkoa Jesusengan egin da haragi eta hezur eta Bere barkamena gizakiok elkarri barkatzean egiten da ageriko. Jainkoaren barkamena egiaz bizi nahi badugu elkarri barkatzen hasi beharra dago!

Horregatik, entzun dugun parabolak Kristok erakutsi digu Jainkoaren barkamenak lotura handia duela guk senideei eskaintzen diegun barkamenarekin eta gainera, elkarri barkatzen diogun heinean Jainkoaren barkamena ere gozatzen dugula. Begira parabolako

zerbitzariari: asko barkatu zaio, baina barkamen hori ez du sentitzen eta bizitzen, ez da egiaz gauzatzen berak lankideari barkatzen ez dakien neurrian. Eta bere jarrera ikustean, Jaunak berea eskatzen dio berriz, barkamena erretiratzen dio, nolabait esateko.

Barkamenaren sakramentura gerturaten garenean ere zera pentsatu behar dugu, apaizaren eskutik jaso dugun Jainkoaren barkamena, "baldintzapean" jasotzen dugula nolabait esateko... senideei barkatzeko gai garen neurrian gertatzen baita egiaz barkamen sakramental hori. Sakramentua ez baita Jainkoarekin adiskidetzeari bakarrik, baita gure bekatuen kaltea jasan duten senideekin adiskidetzeari ere. Zer zentzu du apaizarengandik barkamena jasotzeak, bihotzez senideekin bakeak egiteko inongo asmorik ez badugu?

Hasierako galderara itzuliz... zergatik ez da ebanjelioa sarritan guretzat Berri On gertatzen? Ez ote da, adibidez gaur, barkamena falta delako gure bizitzan... hartzen dena, eskatzen dena eta ematen dena? Bai ondo konturatuko bagina egiaz, elkarrekin denok bakeak egiteko gauza bagina historia aldatzerainoko indarra izango lukeela notiziak! Ospatu egin behar genuke... ez ohikune bat errepikatuz bakarrik egiazko festa eginez baizik. Gure fedearen araberakoa da dena... zenbateraino gaude prest elkarri barkatzeko...?

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Jainkoaren errukiari eta eska diezaiogun entzun ditzala uste onez egindako otoitzak:

- Elizako arduradun eta zerbitzarien alde: Jaunak bizitza leiala izateko grazia eman diezaien, beraien ministeritzari dagokionez.
- Herrietako arduradunen alde: argitasunez eta arretaz joko dezaten guztien eta bereziki behartsuenen zerbitzuan.

—Gaixo eta ezinduen alde: Jaunak barne-sendotasuna eman diezaien bere minetan itxaropenez bizi daitezzen.

—Gure alde, gure etxeko eta adiskideen alde: Jaunak emandako dohain guztiak eskertuz bizi gaitezzen beti.

Bihozbera eta errukitsua zaren Jainko Jauna, beti barkatzen diezu elkarri barkatzen dakitenei; entzun gure otoitzak eta sor ezazu gugan bihotz berria, Kristoren antzeko izanez besteek egindako minak ahaztu ditzagun eta guztiei gogoraraz diezaiegun Zuk zenbat maite gaituzun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jauna, jabe dadila dohain zerutarraren indarra
gure gorputzaz eta arimaz,
gure bizitzan indar hori izan dadin nagusi,
eta ez gure nahia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Irailaren 24an
URTEAN ZEHARREKO XXV. IGANDEA

Migratzaile eta Errefuxiatuen Mundu Jardunaldia

Agurra

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristoren piztuera oroitzen dugu Igandean; Eukaristian parte hartuz Haren salbamena gugana iristen da. Horregatik, esker onez eta bihotz-berritzeko gogoz garturatzen gara, Kristo izan dadin beti gure bizitzaren erdigune eta ezerk ez gaitzan Berarengandik aldendu.

«Migratzeko edo geratzeko aske» dio gaurko Migratzaile eta Errefuxiatuen Mundu Jardunaldiaren goiburuak. Ez dago besterik, kristauok gure-gurea behar dugu migratzaileei, pertsona bezala zor zaien duintasuna defendatzea. Otoitzean gogoan izango dugu asmo hau.

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko,
lege nagusi hau eman diguzu agindu guztien oinarri:
Zu eta lagun hurkoa maitatzea;
egizu, zure aginduak betez, hel gaitzela betiko bizira.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Isaiasek itxaropena eta bizi-indarra ematen dizkigu. Jainkoaren itxaropena da, dohain ematen zaiguna, baina bihotza zabalduz eta jarrera onez guk onartu behar duguna.

Lehenengo irakurgaia (Is 55, 6-9)

Isaias Profetaren liburutik

Bila ezazue Jauna, aurki daitekeen bitartean;
hots egiozue, hurbil dagoen bitartean.
Utz beza gaiztoak bere bidea,
gaizkileak bere asmo txarrak;
itzul bedi Jaunagana, errukiz hartuko baitu,
gure Jainkoagana, guztiz barkabera baita.
Nire asmoak ez dira zuenak bezalakoak,
ezta zuen jokabidea ere nirea bezalakoa, dio Jaunak.
Nola zerua lurraren gainetik garai,
hala nire jokabidea zuen jokabidearen gainetik,
nire asmoak zuen asmoen gainetik.

Erantzun-salmoa (*Sal* 145 [144], 2-3. 8-9. 17-18)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
 ta mai - ta - su - na.

- ✠. Egunero zaitut bedein**kat**uko,
 beti dut zure izena go**re**tsiko.
 Handia da Jauna, guztiz gores**gar**ria,
 mugarik gabea haren handitas**su**na. ✠.
- ✠. Errukiorra eta bihozbera **da** Jauna,
 haserregaitza eta onginahiz **be**tea.
 Ona da Jauna guzt**ti**entzat,
 gupidaz betea bere sorkari guzt**ie**ntzat. ✠.
- ✠. Zintzoa da Jauna bere bide guzt**ti**etan,
 leiala egintza guzt**ti**etan.
 Hurbil dago Jauna dei egiten dioten**en**gandik,
 benetan dei egiten dioten guzt**ie**ngandik. ✠.

Bigarren irakurgaia (*F/p* 1, 20c-24. 27c)

San Paulo Apostoluak Filipoarrei egindako gutunetik

Senideok: Ziur nago, ni bizirik nahiz hilik egon, bere handitasuna agertuko duela Kristok nigan. Izan ere, niretzat, bizitzearen arrazoia Kristo da, eta hiltzea irabazpide. Baina bizitzen jarraituz lan onuragarria egin ahal badezat, ez dakit nik zer aukeratu.

Berdintasunaren alde eman zien, nolabaiteko lan sari sozial gutxiengoa asmatuz. Dena ez da irabazia eta dirua, Jainkoaren asmoetan beharrezkoa denok izatea da garrantzitsua. Gure jokamoldea ez dator bat Jainkoaren asmoekin (*Is* 55, 6-9).

Zoragarria da Jainkoaren bere Erreinua eratzeko gizakion beharra eduki nahi izana. Denoi dei egiten digu; inoiz ez da berandu lanean hasteko. Belaunaldi berriei fedea eskualdatuz Erreinuaren hedapena eta Elizaren etorkizuna bermatzea dagokigu. Dei egiten jarraitzea, hazia botatzea dagokigu. Galdera egin behar diogu gure buruari, zergatik gaur dei horri erantzutea hain zaila gertatzen zaien belaunaldi berriei...

Pauloren testigantza ere bikaina da (Flp 1, 20c-24. 27a). Bere burua besteei eskaini die, fededunak, Ebanjelioari esker, hobeto bizi daitezten. Adinean aurrera egin duenean ere ez dio lanari ihes egiten, baizik eta besteen zerbitzura jarraitzen du. Gure adineko asko bezala: apaiz nahiz sekular, jubilazioko adina ondo pasata ere Elizaren zerbitzuan jarraitzen dute fin asko! Bere zerbitzua besteentzat beharrezkoa dela uste dutelako... Ebanjelioa bazter guztietara helaraziz. Eska diezaiogun Jaunari, jarrai dezala langileak deitzen bere uztarako; eta deitutakoei eman diezaiela bihotz zabala erantzuteko.

Caritasek, elkarteak behar duen berezko sarea eta elkarren arteko lotura zaintzen laguntzen du, ez baikara zailtasunetik aterako elkarte osatzen ez badugu, hau da gizarte antolatua, elkarlotua, indartua eta denen ongizatea bilatzen duena osatzen ez badugu.

Elkarte, elkar zaintzea, konpromisoa, ardurakidetzeta eta onginahia: horra gizadiaren etorkizunerako oinarriak. Denon ongizatearen ezinbesteko osagai dira eta guztiok babesteko balio dute.

Eukaristia ospatzeak, Ogi santua partekatzeak, lagun diezagula fedeak honetara bultatzen gaituela konturatzen.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin dezagun otoitz gizakien alde eta beraien beharren alde, denek izan dezaten gure maitasunaren laguntza:

- Aita Santuak, gotzainek eta apaizek, zerbitzu jarreraz eta apaltasunez zaindu dezaten beren ardurapeko artaldea.
- Herrietako gobernarien alde: guztien ona bila dezaten, ondasunak banatzen asma dezaten eta denontzat zuzentasuna, ongizatea, bakea eta askatasuna bidera ditzaten.
- Gosea edo bestelako beharrak dituztenen alde, gaixorik eta ezinduta bizi direnen alde, etxetik urrun edota bakardadean daudenen alde.
- Hemen gaudenok, Espiritu Santuaz beterik eta fedean sendotuta on egiten saia gaitezen beti munduaren onerako.

Aita zuzena, Jainko onginahiz betea, azkenekoei lehenengoei adina ematen diezu; entzun gure otoitzak eta lagundu Zure bideen bikaintasuna aitortuz Zure alorrean lan egitea ohore handitzat izaten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Indarberritu, Jauna, etengabe zeure laguntzaz sakramentu honetan janaritu dituzunak; ospakizunean ez ezik bizitzan ere zure salbamen-egintzaren fruituak jaso ditzaten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 1ean
URTEAN ZEHARREKO XXVI. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Igandea ospatzen dugu pozik. Nahi duen eran eragiten duen Espirituaren presentzia eta indarra aitortzen ditugu Eukaristian. Espiritu honek eragiten gaitu eta gai egiten Ebanjelioaren poza iragartzen duten profeta eta eragile izan gaitezen.

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, barkatuz eta errukituz
agertzen duzu bereziki zeure ahalmen handia;
isur ezazu etengabe gure gainera zeure grazia,
Zuk agindutako ondasunetara lehiatuz,
zeruko zoriona irits dezagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren deiari leialtasunez erantzuten al diogun hausnartzeko balio digu gaurko Hitzak. Jainkoaren justizia onartzea, bere bizi-promesa geureganatzea da: ez dugu hitzez bakarrik Jainkoa onartu behar, geure bitzta osoarekin baizik.

Lehenengo irakurgaia (Ez 18, 25-28)

Ezekielen Profezia liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Zuek diozue: “Ez da bidezkoa Jaunaren jokabidea”. Entzun, bada, israeldarrok: Nire jokabidea bidezkoa ez dela? Ez ote da zuena bidezkoa ez dena?

Zintzoa, bere zuzentasunetik aldendu, txarkeria egin eta hiltzen bada, egin duen txarkeriagatik hilko da. Eta gaiztoak, egin duen gaiztakeriatik aldendu eta zuzenbidez eta justiziaz jokatzeko badu, bizirik iraungo du. Egindako txarkeriez ohartu eta haietatik aldentzen bada, biziko da, bai, eta ez da hilko».

Erantzun-salmoa (Sal 25 [24], 4-5. 6-7. 8-9)

Ez e - gon, Jau - na, ni - gan - dik u - rrun; zu - re - a nau -
zu, za - toz - kit la - gun.



- ✠. Azaldu niri, Jauna, zeure bideak, '
 erakutsi zeure **bid**exkak.
 Gida nazazu zeure leialtasunean, eta **ira**katsi,
 Zu baitzara nire Jainko salbat**tzai**lea,
 Zugan itxaro dut eteng**abe**. ✠.
- ✠. Izan gogoan, Jauna, zeure gupida eta maitasuna, '
 betidanikoak **bait**ira.
 Ez gogoratu, ordea, nire gaztaroko bekatuez, '
 ez nire **err**uez;
 gogoratu nitaz zeure maitas**un**ean,
 zeure ontasunari dagokionez, **Jauna**. ✠.
- ✠. Ona eta zuzena **da** Jauna,
 bidea erakusten die bekat**ar**iei.
 Apalak zuzenbidez dar**am**atza,
 bere bidea erakusten die apale**i**. ✠.

Bigarren irakurgaia (Flp 2, 1-11)

San Paulo Apostoluak Filipoarrei egindako gutunetik

Senideok: Egia bada Kristok adore ematen dizuela eta maitasunak kementsu egiten zaituztela, egia bada Espirituagan bat eginik bizi zaretela eta bihozbera eta errukitsu zaretela, bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. Ez egin ezer norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, eta besteak norbera baino hobeak direla pentsatuz; ez norberaren onari bakarrik begiratzuz, besteena ere bilatzuz baizik. Izan itzazue zeuengan Kristo Jesusi dagozkion asmoak:

[Hark, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari;
bestela baizik, zegokion aintza utzi
eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez.
Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gainera goratu zuen Jainkoak
eta izen guztietan bikainena eman zion,
Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen,
zeruan, lurrean eta lurpean,
eta mingain guztiak aitortzen Jesu Kristo dela Jauna,
Jainko Aitaren aintzarako.]

Aleluia (*Jn 10, 27*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∕. Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa, dio Jaunak;
Nik ezagutzen ditut,
eta haiek jarraitu egiten didate. ∕.

Ebanjelioa (*Mt 21, 28-32*)

Homiliarako argibideak

Gutzizko maitasuna

Ebanjelioko zein seme ote gara gu? Geure burua ongi ezagutzen

dugu, eta badakigu zer eman dezakegun eta zer ez. Badakigu non hasten diren hasierako beroaldiak eta non amaitzen diren gure hotzaldiak. Eta bi ertz horien artean hortxe gu, ez santu eta ez baldar, baina hortxe maitasunari erabateko bueloa eman ezinik.

Ebanjelio-testu honen aurrean moralizatzeko tentazioa senti dezakegu, beste askotan bezala. Pentsa dezakegu, hemen egitea dela inportantea, gure egintzetatik neurtzen dela dena, hitzek ez dutela ezertarako balio, gure ametsak hutsean geratzen direla egintzen bermea falta izanik, etabar. Hitz batean esateko, askotan esan izan dena eta oraindik ere askotxok pentsatzen duena: gure egintzen arabera ematen digula Jainkoak bere dohaina. Moralismo huts eta gorrira daraman pentsamoldea.

Hobe genuke, seguru asko, geure bizitzaren bereizmen apur bat egitea. Ezagutzen dugu geure barrua. Badakizkigu geure erresistentziak. Zenbat kostatzen zaigun maitatzea. Ezinezkoa gertatzen zaigula bizitza osoa maitasunaren besoetan uztea. Beti jira-bueltaka gabiltzala Jaunaren maitasunaren inguruan, sekula geure burua maitasun horretan murgiltzen utzi gabe. Geure egintzek badakigu ez dutela nahi genukeen neurria ematen, eta ezin dugu gure uste ona horietan jarri; baina, bide batez, geure egintza onen garantia ere eskura eduki nahi dugu.

Begira dezagun gure bizitzaren norabide orokorra, bizitza ez baita egintza bakar batean jokatzen. Zer zailtasun dauzkat maitatzeko? Nondik datozkit zailtasun horiek? Azterketa sakon batean, maila askotako arrazoiak nahastuko zaizkit galdera horien aurrean. Arrazoi horiek ezagutu eta arreta izatea oso lagungarria izaten da bizitzan.

Eta gero irizpide bat dago beti aurrean eduki beharrekoa: ea nire bizitzan zer toki betetzen duen Jainkoaren nahiak. Benetako lehentasuna eskaintzen ote diodan nahi horri. Nahiz eta askotan nire

bizitza kateatua sentitu, ea hazten ari ote naizen barruko askatasunean, askatasun horren eskutik dena Jainkoari entregatzeko. Beste era batera esanda, nola aurkitzen naiz une honetan Jainkoarekiko maitasunari dagokionez? Ba al daukat punturen bat kinkan, nire barruaren jatortasuna jokarazten didana? Nire bihotzaren zabaltasuna nondik sortzen zait: neure onetik ala maitasunaren sakonetik? Eta hori, jakinik askotan oraindik ere barruak «ezetz» esaten diola maitasunari.

Pentsa dezakezu, gogoeta asko dela eta, hemen, egitea dela azkartu beharrekoa. Gogoeta hauekin guztiekin ez dut egintza edo praxia atzeratu nahi. Bizitzarako maitasun-estrategia kontuan hartzea da.

Esate baterako, zenbaitetan neure akats psikologiko bat gerta dakidake mingarria. Baina akats hori Jainkoaren maitasunetik begiratzen badut, badakit ez dudala sekula kenduko, eta ez diola inporta kentzea. Beste adibide bat: barruan sortzen zaizkidan erresistentziak pazientzia landu eta sakontzeko ongi datozkit. Gauzak ongi begiratu, ez daukat erresistentzia horiengatik erre beharrik; etorriko da askatasunaren ordua.

Baina, bestea ere kontuan eduki behar da: aitzakiak erraz asmatzen ditugula ez maitatzeko, ez entregatzeko, mahastira ez joateko. Beraz, esan bezala, oso inportantea da erne bizitzea, beti bereizkuntza jatorra egitea, Jainkoaren nahiari ematen diogun garrantziaz galdetzea. Eta horrela ikasiko dugu gure ezetzak eta baietzak neurtzen. Bai baitira garrantzi handirik ez daukaten ezetzak; eta badira azal hutsa diren baietzak. Kontua ez ote da behingoan guztizko maitasunean murgiltzea?

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin dezagun otoitz gizaki guztien alde eta beraien beharren alde, inori falta ez dakion gure bihotz onaren laguntza:

- Elizaren alde, bere ondasunak asmo pastoral eta sozialen zerbitzuan erabil ditzala, eska diezaiogun Jaunari.
- Ekonomilariak beren plangintzak egitekoan gogoan izan dezatela beti, pertsonaren osotasunaren garapena izan behar dutela helburu, eska diezaiogun Jaunari.
- Gure gizartearen oparotasun eta leunkeriazko giroan bizi diren aberatsak kontura daitezela, badirela beren banketeetako ate ondoan horien apurren zain dauden Lazaro pobreak, eska diezaiogun Jaunari.
- Gure bihotza ez dadila gogortu, baizik eta Jainkoak munduko pobreen bidez egiten digun deia entzun dezagula, eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, prestutasunez onartzen dituzu bihotz-berritu eta zuzentasunez jokatzen duten bekatariak; entzun gure otoitzak eta emaguzu Kristoren bat eginez bakea eta barkamena iristeko grazia. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Betiko biziaren sakramentu honek
berri ditzala, Jauna, gure gorputz-arimak,
zure Semearen heriotza aldarrikatuz
berarekin bat egiten dugunok,
haren piztueran ere parte izan dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Urriaren 8an
URTEAN ZEHARREKO XXVII. IGANDEA

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Eukaristian, Jainkoaren Maitasuna ospatzen dugu igandez igande. Gaurkoan Jainkoa mahastizain zintzoa bezala agertzen zaigu, eta gu mahastiko langile bezala.

Lagun diezagula Eukaristiaren ospakizunak Jainkoaren mahastiko partaide arduratsu izan behar dugula jabetzen.

Damu-otoitza

Jesu Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitzela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

—Jesus Jauna, Aitagana garamatzan bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa, ontasun guztien iturria,
guk merezi eta uste baino neurri handiagoan
betetzen dituzu gure eskariak;**

**isur ezazu gugana zeure errukia,
askatu gure bihotza beldur guztitik
eta eman eskatzera ere ausartzen ez garena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Goi-mailako literatur idatzia dugu Isaiasen “Mahastiko Kantua”. Aitaren jokabidea agertzen digu: langilea, zorionsua, apala, fruitua itxaroten dakiena... nahiz mahastiak (guk) bestelako fruituak eman.

Lehenengo irakurgaia (*Is 5, 1-7*)

Isaias Profetaren liburutik

Nire adiskidearen izenean nator kantatzera
adiskidearen eta beraren mahastiaren kantua.
Nire adiskideak bazuen mahastia, mendi-malda jorian.
Lurra harrotu, harriak kendu
eta landare aukeratuak landatu zituen.
Erdian talaia eraiki zuen eta dolarea egin.
Mahats ona espero zuen, eta sasimahatsa eman zion.

Orain, bada, Jerusalemgo bizilagunok,
Judako gizon-emakumeok,
erabaki zeuek nire eta nire mahastiaren arteko auzia.
Zer egin niezaiokeen neure mahastiari, egin diodanaz gainera?
Mahats ona espero nuen; zergatik eman dit sasimahatsa?

Esango dizuet, bai, zer egingo diodan neure mahastiari:
hesia kenduko diot, larre bihur dadin;
harresia zulatuko, zapal dezaten;
lugorri bihurtuko dut: ez dute inausiko, ez jorratuko,

eta sasiak eta laharrek hartuko dute;
bertan euririk ez egiteko aginduko diet hodeiei.

Horra, bada: Israel da Jaun ahalguztidunaren mahastia,
Judako herria haren landare-sail kuttuna.

Zuzenbidea espero zuen Jaunak harengandik,
eta horra: zuzengabekeria!

Justizia espero zuen, eta horra: aieneak!

Erantzun-salmoa (Sal 0 [79], 9 eta 12. 13-14. 15-16. 19-20)

Jau - na, zu - re on - gi - nai - a e - ra - kus e - zai - gu -
zu, zu - re sal - ba - me - na e - mai - gu - zu.

∞. Egiptotik mahatsondo bat atera zenuen
eta landatu, jentil-herriak kanpora botaz.
Itsasoraino zabaldu zituen adarrak,
Eufrates ibairaino ino muskilak. R/.

∞. Zergatik zulatu diozu inguruko ko hesia?
Horrela, bidaztiek fruitua lapurtzen diote,
basurdeek triskatzen,
basapiztiek lardaskatzen. R/.

∞. Jainko ahalguztiduna, itzuli, arren,
begira zerutik, ikusi!
Hartzazu zeure mahatsondoaren ardura,
zaindu zeure eskuz landatutu duzuna. R/.

- ∞. Ez gara Zugandik inoiz **ald**enduko;
 Zuk bizia emango diguzu ‘
 eta guk dei egingo diogu zure **izen**ari.
 Oi Jauna, Jainko ahalguztiduna, eraberri gaitzazu;
 erakutsi aurpegi argia, sal**ba** gaitezen. R

Bigarren irakurgaia (Flp 4, 6-9)

San Paulo Apostoluak Filipoarrei egindako gutunetik

Senideok: Ez izan ezeren kezkarik, baizik eta gorabehera guztietan agertu zeuen eskabideak Jainkoari, otoitz eta erregu eginez eta eskerrak emanez. Eta guk pentsa dezakeguna baino handiagoa den Jainkoaren bakeak gordeko ditu zuen gogo-bihotzak Kristo Jesusen bidez.

Gainerakoan, senideok, hartzazue aintzakotzat egiazko, gizabidetsu, zuzen eta garbi den guztia, maitagarri eta goresgarri, bertutetsu eta onargarri den guztia. Egizue nigandik ikasi, hartu eta entzun zenutena eta nigan ikusia. Eta bakea ematen digun Jainkoa zeuekin izango duzue.

Aleluia (Ik. Jn 15, 16)



- ∞. Nik aukeratu zintuz**te**dan zuek,
 eta eginkizun hau **eman** dizuet:
 fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela edonon, ‘
dio Jaunak. R.

Ebanjelioa (Mt 21, 33- 43)**Homiliarako argibideak***Mahastia ez da gurea*

Gaurko ebanjelio-zatiak proposatzen digun zatia benetan gordina da. Jakina!, beti bezala, besteen bizkarrera bota daiteke parabola horren esanahia, geure erantzukizuna eta zerikusia salbu utziz. Baina, iruditzen zait galdera asko ez ezik salaketa handia ere badaukala parabolak guretzat. Eta guretzat esatean, fededun bakoi-tzarentzat, kristau-elkartearantzat, Eliza osoarentzat ari naiz esaten. Bakoitzak ikusi beharko du zer jaso nahi duen eta nola jaso nahi duen Jesusek esaten digunetik.

Nagusiak mahasti bat landatu du. Ardura guztiz eta baliabide guztiz hornitu du. Eskaini beharreko maitasun osoa bertan eskaini du. Langile batzuei uzten die, mahastiaren ardura izan eta haren emaitza bildu dezaten. Baina, langileek nagusiaren lekua hartzen dute. Eta nagusiak bidalitako mezulariak banan-banan hil egiten dituzte. Eta mahastiaren nagusi bihurtzeko ametsez, nagusiaren semea bera ere hil egiten dute. Nagusiak, bere haserrean, mahastitik bota eta gaitzetsi egingo ditu, bere mahastia beste langile batzuen esku utziz.

Historio hau juduei lotu izan zaie, haiek ez baitzuten Jainkoaren mahastia errespetatu eta Jainkoaren Seme Jesus hil egin baitzuten. Juduek ez zutela, alegia, Jainkoaren nahia onartu eta, horregatik, Jainkoaren proiekturik gabe geratu zirela, Erreinuaren mahastia galdu zutela. Eta haien jokabideari esker, jentilen edo paganoen eskura etorri zela Jainkoaren Erreinoa. Eta beharbada, Jesusen garaian parabola honek esanahi hori eta salaketa hori gorde zezakeen bere barnean. Baina, ez dut uste ordukoa eta ordukoentzat bakarrik izan zela pentsa dezakegunik.

Izan ere, juduek Erreinua zapuztu izana guretzat dohaina jasotzeko aukera izan baldin bada, horrek ez du esan nahi besterik gabe eta betirako gurea denik. Mahastiko nagusiaren eskakizunak indarrean jarraitzen du. Eta kontua izango da, mahastia nagusiarena dela aitortuz, haren emaitzak zintzo entregatzea. Baina, Jainkoaren nahia bere onean jaso eta onartu ordez, mahastia geurea dugula pentsatzen badugu, eta mahastia geure ondasun bezala kudeatzen badugu, juduei gertatu zitzaiena gerta dakiguke.

Jesusek bere garaian herriko agintari erlijiosoei esan zien parabola hau. Gaur egun, besteak beste, eliz arduradunok geuretzat berresan beharko dugu. Zer egin dugu eta zer egiten dugu Jainkoaren mahastiarekin? Jainkoarena dela gogoan al dugu ala geurea bagenu bezala darabilgu? Zenbaterainoko kariñoa eta ardura fina jartzen dugu mahastiaren zainketan, beraren kontua Jainkoari eman beharko diogula gogoan izanez? Askotan eliztarren batzarra ez al dugu barruti propio bihurtu?

Agintean dagoenak, eta berdin da zer aginte den, jakin behar luke «zerbitzu» batean ari dela, eta ez dela ari gauzak «bere erara» eraman ditzakeen barrutian. Baduela Norbait gainetik. Eta, azken batean, Jainkoak nahi duen bezalakoa izango dela mahastia eta hark eratuko duela mahastiaren etorkizuna nahi duen bidetik. Egia da, agintean dagoenak agindu egin behar du; baina sekula ahaztu gabe, bere agindua ez duela azken hitza, eta bere agindua berea ez duen alor batean ematen ari dela.

Ez Aita Santuak, ez gotzainak, ez apaizak, ez laikoak, ez erlijiosoak, ez inork, ez du Jainkoaren lekua bete behar. Goizero jaikitzean gogoratuko bagenu hau, seguru asko beste era batera bideratuko genuke geure agintea eta geure lana. Jainkoak bere Semea mahasti honetara bidaltzerainoko maitasuna erakutsi dio mahastiari, eta «langileak» ez luke maitasun hori galtzen utzi behar. Ez da bidezkoa.

Gaurko Elizaren gaitzak ez ote datoz, neurri batean, honetatik? Gure jokabidea ikusita, ez ote zaigu mahastia eskuetatik kendu? Kontuz! Mahastia ez da gurea!

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: Espirituak gugan sortzen duen seme-alabatzako konfiantzaz beterik, zuzen diezazkiogun gure eskariak Jaunari:

- Elizaren alde: fededun guztien testigantza biziarekin, ager diezaiela gizaki guztiei Jainkoaren salbamena. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herri agintarien alde: izan dezatela argitasuna gizaki guztien arteko bakea, ongizatea eta erlijio-askatasuna bermatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gerra eta ezina nozitzen duten herrien alde: indarkeria, suntsiketa eta mina alde batera utzi eta bizikidetzaren alde joka dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen bilduak gaudenon alde: Jainkoak argi ditzan gure bihotzeko begiak, jaso dugun deiaren handitasuna ikusteko. Eska diezaiogun Jaunari.

Babes ezazu maitasunez Zure Eliza, Jauna, eta ez eskutik utzi Zeuk landaturiko mahastia; zaindu ezazu errukiz eta sendotu Zure indarrez, Kristogan txertaturik betiko bizitzako fruitu ugari eman ditzagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko ahalguztiduna, sakramentu honetan parte hartzeak
ase dezala Zurekiko dugun gose-egarria
eta eralda gaitzala hartu dugun horretan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Urriaren 15ean
URTEAN ZEHARREKO XXVIII. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Jainkoak gizon-emakume guztiei egiten dien deia, gonbita, entzunaraziko digu Jesusek gaurko ebanjelio zatian. De horri erantzun nahirik jarraitzen diogu Jesusi, eta dei horrixeko erantzunez etorri gara Jaunaren mahai ingurura.

Pozez etorri gara, salbatzen gaituen Jauna hemen, geurekin, dugulako.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharreak garelako, bekatuak hilik bizi berrira piztu gaituzen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **e**torri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jauna, izan dezagula beti zure grazia,
bai aldez aurretik, bai bidelagun;
Zuk eutsirik, on egiteko prest egon gaitezen beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Gizaki guztientzat da Jainkoaren gonbidapena. Jainkoaren ezagupenean aurrera egin eta berarekin bat eginda bizitzeko deia egiten digu Isaiasek.

Lehenengo irakurgaia (2 *Erg* 5, 14-17)

Isaias Profetaren liburutik

Egun hartan, jai-otordua emango die
Jaun ahalguztidunak mendi honetan herri guztiei,
jaki guri eta edari bikainekin,
haragi mamitsu eta ardo zahar finekin.
Mendi honetan kenduko du
herri guztien gainean hedatua dagoen estalkia,
nazio guztiak estaltzen dituen oihala.
Betiko hondatuko du heriotza;
xukatuko ditu Jainko Jaunak aurpegi guztietako negar-malkoak
eta lur osotik aldentuko du bere herriaren lotsakizuna,
Jaunak hitz egin baitu.

Eta egun hartan esango da:

«Hara gure Jainkoa!
 Itxaro genuen salbatuko gintuela;
 Jauna da: harengan genuen itxaropena.
 Poztu gaitezen eta alaitu salbatu gaituelako.
 Jaunaren eskua mendi honetan kokatuko da».

Erantzun-salmoa (*Sal* 3 [22], 1-3. 4. 5. 6)



Jau - na dut ar- tzain, ez naiz e- ze - ren be - ha- rre - an.



- ∞. Jauna dut artzain, ez naiz ezeren **behar**reen;
 larre gurietan etzan**ar**azten nau,
 ur-bazter lasaira eramaten '
 eta indarrak dizkit **ber**ritzen;
 bide segurutik narama,
 bere izenari ohore **eg**inez. R.
- ∞. Ibar beltz ilunean ban**abil** ere,
 ez naiz gaitz**ar**en beldur,
 Zu nirekin **bait**zaude;
 zure artzain-makilak las**ait**zen nau. R.
- ∞. Mahaia atontzen **did**azu
 etsaien **begi**-bistan;
 olioz gantzutzen didazu **bur**ua,
 gainezka dut **edont**zia. R.
- ∞. Zoriona eta maitasuna **ditut** lagun,
 bizitzako egun **guz**tietan,
 eta Jaunaren etxean **bizi**ko naiz
 amaigabeko **egu**netan. R.

Bigarren irakurgaia (*Flp 4, 12-14. 19-20*)

San Paulo Apostoluak Filipoarrei egindako gutunetik

Senideok: Badakit urritasunean nahiz ugaritasunean bizitzen; edozein egoeratarako zaildua nago eta edozertara jarria: aserik nahiz goseak egotera, ugari edukitzera nahiz beharrianera. Dena dezaket indartzen nauen Kristogan. Nolanahi ere, ongi egin zenuten nire atsekabeen zeuen solidaritatea agertzean.

Ordainetan, nire Jainkoak oparo beteko du zuen eskasia guztia, bere aberastasunen arabera Kristo Jesusengan. Aintza Jainko gure Aitari menderen mendetan. Amen.

Aleluia (Ik. *Ef 1, 17-18*)

A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.

∞. Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak
argi ditzala gure barruko begiak,
jakin dezagun zer itxarotera dei egin digun. ∞.

Ebanjelioa (*Mt 22, 1-14*)**Homiliarako argibideak**

Erantzukizuna nondik?

Askotan aipatu izan da harako kontakizun hura: Kazetari bat edo hurbildu omen zen, eraikin berri bat egiteko harriak lantzen ari ziren

langileengana, eta aurkitu zuen lehenengoari galdetu omen zion: «Zertan ari zara?». Erantzuna garratza: «Zertan ariko naiz ba, hementxe nezka-nazka eginda, eguzkiaren beroa eta lanaren astuna eraman ezinik; denak pikutara botako nituzke».

Kazetaria aurreraxeago doa eta bigarren bati galdetzen dio: «Zu zertan ari zara?». «Agindu didatena egiten; harria lantzeko esan didate eta zer erremedio, esana bete behar!». Aurreraxeago beste bat lan berean hura ere: «Zu zertan ari zara?». «Zertan ari naizen? Katedral eder bat egiten! Zoragarria da Katedral bat egitea!».

Hirurek lan bera ari zuten, baina lanaren erantzukizuna ez zaie iturri beretik sortzen, hori bistakoa da. Batek lan gizakonstrako eta ilun ikusten duena, besteari erregalu eta dohaina iruditzen zaio. Gaur askotan aipatzen da erantzukizunaren arazo hau, arazo izatera iritsi baita. Ez omen gara ari gure gazteak erantzukizunean hezitzen, erantzukizunaren eskasia handia sumatzen omen da. Izan daiteke egia. Nik, hala ere, emaitzari baino gehiago erantzukizunaren iturriari begiratu nahi nioke.

Erantzukizuna nondik eta nola? Garai batean, garai luze batean, beldurra izan zen erantzukizunaren eragile. Agintzen zuenak agintzen zuen, eta hark esandakoa egin beharra zegoen, bestela nolabaiteko mehatxua baikeneukan geure buru gainean. Autoritateak pisu handia zeukan, eta esandakoa egin beharra zegoen. Kristau giroan ere, infernua zela edo bekatuaren erru astuna zela, beldurrak lan handiak egiten zituen. Eta hura ez zen ona. Beldurra ezin daiteke izan erantzukizunaren arrazoia. Ezta agintea aginteagatik ere.

Orain beldurra joan da, eta erantzukizuna nola sortu ez omen dakigu. Jendeak nahi duena egiten omen du. Askatasuna askakeria bihurtu zaigu nonbait, eta ez dakigu nola bideratu auzi hau. Berriz beldurraren ikuspuntura itzultzea tristea eta gizakonstrakoa izango

litzateke. Gaur egun ez luke, gainera, inolako eraginik izango. Beldurrak ibilbide motza du.

Dohainaren kontzientzia izan daiteke erantzukizunaren iturri. Eta horixe lortu nahi du Jesusek. Eztei-otordu batez mintzo zaigu. Maitasunaren mahaira deitu gaitu. Dei hori gonbidapena delako, doan egindako deia delako, ezin daiteke zapuztu eta bazterrera utzi. Jainkoak esker txarraren mina du minik handiena. Jainkoak ez du inor beldurtu nahi; bere eskaintzaren ederra onartzea nahi du. Eta horiexek biltzen ditu beregana, gonbidapena onartzen diotenak. Maitasuna handia izan delako, maitasunaren deia ere larria izaten da.

Erantzukizun horren aurrean beste erantzukizunak gailentzen zaizkigu askotan: seme-alabak, lana, konpromisoa, politika, kulturgintza, adiskideak, bidaiak... Horiek denak aurretik eta gainetik jartzen zaizkigunean gauza bat erakusten dugu: Jainkoaren maitasunak ez gaituela erantzukizuna sortzeraino barrutik hartu. Eta beste horietara ematen dugu bihotza. Baldin eta Jainkoaren maitasuna izango banu barruko betetasun, Jainkoaren maitasuna benetakoa izango banu barruan, orduan beste guztia maitasun horren inguruan antolatuko litzaidake.

Maitasunaren eta dohainaren kontzientzia handia behar da, dena Jainkoaren erreinuaren inguruan tolestatzeko. Eta horixe dugu gaurko gizarteari egin diezaiokegun ekarpenik ederrenetakoa: maitasunaren errealitatea azaldu era guztietara, Jainkoaren maitasun hori benetakoa dela sinets dezan. Eta, izan ziur, maitasun benetako horrek sortuko luke benetako erantzukizun-jarrera. Maitasunak adina erantzukizun ez baitu beste ezerk sortzen eta lortzen. Noski, lana luzea eta sakona da, ez da erraz egitekoa. Saiakera ez ezik, esperientziaren lana ere bada. Maitasuna ez baita hitzez erakusten, bizieraz baizik. Erantzukizunaren auzia!

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunarenganako uste onez beterik egigun otoitz:

- Kristau izateagatik sufritzen dutenek izan dezatela Ebanjelioarekin leial izatearen pozak ematen duen barne-bakea. Eska diezaiogun Jaunari.
- Nazioetako arduradunek izan dezatela egiazaletasuna eta justizia, denon ondasunak zaindu eta banatzerakoan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Lurra landuz bizi direnek izan dezatela bere lanaren fruituak egoki jaso eta banatzeko bidea. Eska diezaiogun Jaunari.
- Igandea ospatzera biltzen garenok izan dezagula geroaren gogoz, oraina Jainkoarekin bat eginda bizitzeko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, zeure Semearen otordura gonbidatzen dituzu gizaki guztiak; entzun gure erreguak eta emaguzu Zure Espirituaren jakinduria, Zure deiaren itxaropena ezagutu dezagun eta guretzat prestaturik duzun erreinuko mahaiaren aintza goza dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Gutziz ahaltso zarenez, Jauna, apalik eskatzen dizugu, zure Semearen Gorputz eta Odol santuez janaritu gaituzunok parte izan dezagula jainkozko zure izatean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

